



1. LAN AGIRIA

**KALITATEA TURISMOAN, KULTUR ESKAINTZA, MERKATARITZA
ETA KIROLA
LAN-TALDEA**

1. LAN AGIRIA:

KULTURA

**1. BILERA
2002KO EKAINA**



1. LAN AGIRIA

1. KULTURA

□ Sektorearen definizioa: kultur establezimendutzat sailkatutakoak, Donostian

Kultur sektore izendapenaren azpian, jarduera eta prozesu, ekipamendu, agente, kolektibo eta profesional ugari multzokatu ohi dira, eta horrek izaera konplexua ematen dio sektoreari, sektorearen diagnostia egiteko orduan.

Kultur sektore anitza, heterogeneoa dela esan ohi da. Eta, horrekin batera, sektore garrantzitsua dela. Bere baitan biltzen dituen jarduera kopurua, enpresen tamaina eta enplegu asoziatuari erreparatuz gero, beste sektore batzuek jasotzen duten tratamendu bera merezi duela defendatzen dute askok maiz.

Gauzak horrela, lehenengo eta behin egokia dirudi sektorearen beraren mugak zein diren azpimarratzea, hots, kultur jardueratzat hartutakoen artean Donostian zeinek duen pisurik handiena zehaztea, establezimendu kopuruari eta enplegu asoziatuari dagokienez.

Aktibitateen Sailkapen Nazionalan, kultur jarduerak 92. taldean multzokutzen dira nagusiki. 1999ko Aktibitate Ekonomikoen Direktorioaren (DIRAE) arabera, Donostian 253 establezimendu ziren 92 taldean, eta gutxi gorabehera 1.205 lagun enplegatuta¹; hots, establezimendu guztien %1,4 eta enpleguaren %1,7.

Hamabi jarduera talde bereizi diren arren, lau atal handitan multzokatu litezke:

- Ikus-entzunezkoen eta komunikazioaren sektoreari lotutako jarduerak
- Arte eta literatur sorkuntza eta interpretazioarekin lotutako jarduerak
- Ikuskizunen sustapen eta kudeaketarekin lotutako jarduerak
- Ondarearekin eta lehen belaunaldiko ekipamenduekin (liburutegiak, museoak) lotutako jarduerak

¹ DIRAEk, establezimenduen enplegu tamainari begiratzen dio establezimenduak sailkatzeko orduan, eta tamaina-tarte motaren arabera balioztatu da zifra



1. LAN AGIRIA

1.1. koadroa Kulturaltzat sailkatutako establezimenduen banaketa, jardueraka. 1999.

CNAE Taldea	Establezimenduak		Enplegu asoziatua	
	Z.	%	Z.	%
92.11 Zinema eta bideo ekoizpena (jarduera osagarriak barne)	44	17,4	95	7,9
92.12 Filmen banaketa	2	0,8	8	0,7
92.13 Filmen emanaldia	7	2,8	51	4,2
92.20 Irrati eta telebista jarduerak	15	5,9	455	37,8
92.31 Arte eta literatur sorkuntza eta interpretazioa	121	47,8	260	21,6
92.32 Ikuskizun aretoen gestioa	3	1,2	19	1,6
92.33 Azoken eta jolas-parkeen jarduerak	14	5,5	25	2,1
92.34 Ikuskizunen beste jarduera batzuk	16	6,3	48	4,0
92.40 Berri-agentzien jarduerak	11	4,3	32	2,7
92.51 Liburutegi eta artxibategien jarduerak	10	4,0	62	5,1
92.52 Museoen jarduerak eta leku eta eraikin historikoen kontserbazioa	9	3,6	75	6,2
92.53 Lorategi botanikoen, zoologikoen eta parke nazionalen jarduerak	1	0,4	75	6,2
Guztira	253	100,0	1.205	100,0

Iturria: Eustat, Aktibitate Ekonomikoen Direktorioa. 1999.

Donostian, arte eta literatur sorkuntza eta interpretazioari lotutako aktibitateak ugariak dira establezimenduei dagokienez (%48), baina ez enpleguari dagokionez, gehien-gehienak banakako sortzaileak baitira, eta ez enpresa edo erakundeak. Kolektibo hau osatzen dutenek izaera oso heterogeneoa dute, eta barne-kohesio eskasa dute jarduera estrategia bera beren gain hartzeko, eta ondorioz, solaskide edo barne ordezkari aitortuak izateko.

Ikus-entzunezko sektorearekin lotutako jarduerak (zinema-ekoizpena, zabalkundea eta emanaldia, irrati eta telebista jarduerak) establezimenduen %27 bakarrik hartzen dituzte, baina enplegu asoziatu handiena duen taldea da, enplegu asoziatuen erdia hemen izaten baita. Talde honetan aipagarriak dira zinema eta bideo produkzio-etxeak (34 establezimendu) edota telebistak (lokalak, euskalduna eta espainola), aldi berean produkzio-etxe eta hedatzaile direnak. Sortzaileen kolektiboak baino antolaketa eta konplexutasun maila handiagoa du honako



1. LAN AGIRIA

kolektiboak, gehienak enpresa izateak erakusten duenez. Etorkizunean garapen estrategia bera aurrera eramateko gaitasun handiagoa izan dezakete.

Igeldoko Jolas-parkeari lotutako jarduerak, zezenketak, dantzalekuak... 33 establezimendu daude, tamaina txikikoak, enplegu gutxikoak, eta jabeak banakakoak dira. Estuki lotuta daude kultur garapenaren jolas-dimentsioari. Eta ez dute ekimen bateratuak garatzeko kolektibo batek behar duen barne-kohesiorik.

Azkenik, establezimenduen %13 bakarrik daude emanak ondare eta ekipamendu publikoekin (liburutegiak, artxibategiak eta museoak) zerikusia duten jardueretara. Enpleguen %18 suposatzen dute. Eta agente publikoak (Udal Kultur Patronatoa, Euskal Fimoteka, Foru Aldundia...) daude kolektibo honetako establezimenduen jabeen artean. Zentzu honetan, kultur sektorearen arlorik instituzionalena da.

Informazio honen harira, honakoa ondoriozta daiteke:

- Kultur sektorea gutxiengoan dagoen jarduera sektorea da Donostian, bai establezimendu kopuruari bai enplegu asoziatuari dagokionez.
- Arte-sorkuntza, ikus-entzunezko ekoizpena eta banaketa, olgeta-zerbitzuak eta kultur ekipamendu tradizionalekin lotutako jarduerak dituzte xede sozialtzat establezimenduek.
- Sortzaileek osatzen dute kolektiborik ugariena; baina, aldi berean, anitzena eta indibidualena.
- Ikus-entzunezko sektorea da kolektiborik antolatuena, jabeen artean enpresa gehien dituen eta enplegu maila handienekoa.
- Erakundeak nagusitzen dira tradizionalki administrazio publikoarekin lotutako jardueretan: ondarea, liburutegiak, artxibategiak eta museoak.

Udala, kultur agente nagusia

2002an, 3.750 milioi pezetako aurrekontua onartu du Udaleko Kultura sailak. Udal aurrekontu osoaren %9,4 da.

Azken lau urteotan %14 handitu da Sailaren aurrekontua, baina pisua galdu du Udalaren aurrekontu osoaren aldean, eta ia %17 egin du atzera aipatu epean.



1. LAN AGIRIA

1.2 koadroa Udal aurrekontuaren bilakaera, 1999-2002.

	Aurrekontua milaka pta-tan.				
	1999	2000	2001	2002	Δ epea
Udala guztira.....	29.076,13	29.876,40	34.226,22	39.919,67	37,3%
KULTURA	3.279,77	3.211,12	3.526,53	3.750,00	14,3%
Sustapena eta Zabalkundea	1.634,77	1.830,21	1.938,30	1.910,32	16,9%
% Kultura / Udala guztira	11,3%	10,7%	10,3%	9,4%	-16,8%
% Sustapena eta banaketa / Kultura guztira.....	49,8%	57,0%	55,0%	50,9%	2,2%

Kulturaren esparruan, bi eremu nagusitan esku-hartzen dute Udalek.

1. Zerbitzuak emateko eta kultur jarduerak egiteko beharrezkoa den ekipamendu sarea sortzea.
2. Formazioa, sorkuntza-ekoizpena eta kulturaren zabalkundea xede duten jarduerak bultzatzea.

Zentzu honetan, Donostiako Udala ez da salbuespena, eta Kultura Sailaren aurrekontuaren %51 kulturaren sustapen eta zabalkundean erabiltzen da. 2002.ean, guztira, 1.910 milioiko gastua izan zuen; bizilaguneko 21.000 pezeta inguru urteko. 1999an 1.635 milioi gastatu zituen; hortaz, %17ko igoera jazo da.

Udal Kultur Patronatoa -Donostia Kultura- arduratzen da kultur aktibitateez eta zerbitzuez, baita udal ekipamendu jakinez ere.

Berriki, Foru Diputazioarekin eta 9 enpresa pribaturekin batera, Kursaal Fundazioa sortu du Udalak, Kurasaalean ospatzen diren ikuskizunak sustatzen dituen erakundea.

1. Donostia Kultura-ren menpeko ekipamendu sarea

Bi ekipamendu mota bereizten dira: hurbileko ekipamenduak eta ekipamendu zehatzak.

➤ **Hurbileko ekipamenduak**

9 Kultur Etxe: Casares, Altza, Egia, Larrotxene, Intxaurren Berri, Loiola, Lugaritz, Okendo eta Amara. Amaran zabalduko Ernest Lluch izenekoarekin osatu da, momentuz, hurbileko ekipamenduen Donostiako mapa. Hemendik



1. LAN AGIRIA

aurrera, diren ekipamenduen berrikuntza eta hobekuntzari ekingo diote. Hasteko, lau Kultur Etxe zaharrenei: Okendo, Larrotxene, Casares eta Loiola.

Auzoetako kultur bizitza dinamizatzeko helburuarekin jaio ziren Kultur Etxeak, baina, aldi berean, kultur espezializazioa lortzea ere izan da helburua, eta, hala, bakoitzaren arlo tematikoan gauzatu diren proiektuei udal proiektzioa eman zaie, eta ez auzoko proiektzioa. Era honetan, zentroa kalitatearekin identifikatzeko joera gainditu eta hiri barruan mugikortasuna bultzatu nahi izan da. Espezializazioak bereizten edo ezaugarritzen du Donostiako hurbileko ekipamenduen eredua, zalantzarik gabe.

Espezializazioari dagokionez, irratia gaia garatze bidean dago Casares Kultur Etxean (teknikoki jada bideragarria da) eta ingurumena Loiola Kultur Etxean.

Kultur ekipamenduen hornidura maila baloratzeko orduan, auzorik gehienek nahikoa iritzi ona dute, Aietek, Ibaetak eta Martutenek izan ezik. Horiek ez dute ekipamentu komunitariorik. Martutenen Loiolako ekipamendua ari dira erabiltzen, eta faltan dute gizarte-etxe edota kultur etxe bat.

Horrezaz gainera, beharrezkotzat jotzen da Bidebieta auzoko eta Loiolako egungo hornidura indartzea. Hainbat lekutan, sakabanatutako auzoetan eta masa kritiko handiegirik ez dutenetan (Ibaeta, Zubieta edo Añorga), elkarrekin biltzeko guneak eskaintzeko ahalegina egin nahi da.

Instalakuntzen kalitateari dagokionez, balorazioa oro har nahiko ona da, eta balorazioa ona izango da berrikuntza lanak amaitzen direnean, Grosen kasuan esate baterako. Baldintza aurkakoenak Añorgan eta Igeldon dituzte, instalazioak eskasak direla esaten baita. Gainera, Antiguako zerbitzuak modernizatzeko komenentzia ere aipatzen da.

➤ **Ekipamendu zehatzak**

Donostia Kulturaren ardurapean dagoen ekipamendu zehatzen sarea honakoek osatzen dute: Antzoki 1, Museo 1 eta Liburutegi Nagusia (bai eta Kultur Etxeetan diren liburutegiak ere). 2000. urtean, guztira 11 liburutegi ziren.

- **Victoria Eugenia Antzokia:** birgaitze fasean dago. Bere edukia definitzeko garai egokia da.



1. LAN AGIRIA

- **Principal Antzokia:** Donostia Kulturak programatutako jarduera eszeniko eta zinematografikoen egoitza finkoa. 2000.ean, guztira 167 lan hartu zituen bere baitan; guztira 788 saio eta 61.000 ikusletik gora (udako antzerki garaia, Zinema Fantastiko eta Beldurrezkoaren Astea, zinema komertziala, Nosferatu, neguko antzerkia, etab.). 2001.ean, guztira 379 obra programatu ziren, eta guztira 442 emanaldi eta 99.260 ikusle izan ziren. Publikoa %63 handitzea ekarri du.
- **San Telmo Museoa.** 2000. urtean, 14.000 objektu zeuden inbentariatuta Museoaren lau ataletan (arkeologia, arte ederrak, etnografia eta historia) eta aldi baterako 6 erakusketa antolatu ziren. Guztira 106.000 lagunengatik bisita jaso zuen. 1996-1999 artean Museoa berritzeko lanak (klastroko lanak) amaitu dituzten arren, oraindik erabakitzeko dago San Telmo zer nolako museoa izatea nahi den. Bi definizio darabiltzate eskuartean: Hiria Museoa edo Euskal Kulturaren Museoa. Kursoaren proiektuak atzeratu egin zuten San Telmoren errehabilitazioa eta definizioa, eta gaur egungo Tabacaleraren proiektuak ere ondorio bera izan dezake. Azken batean, erabakitzeko zain dagoen gaia dela aho batez onartzen den arren, epe motzean *stand by* gelditzeko aukera handiak ditu.
- **Liburutegi Nagusia** hiru egoitzatan barreiatuta dago: Alderdi-Eder, Konstituzio Plaza (ondare historikoak eta unitate teknikoak) eta Fermín Calbetón (haurren atala). Publikoari Alderdi-Ederren eta Fermín Calbetónen ematen zaio zerbitzua. Era berean, auzoetako Kultur Etxeetan diren liburutegien ardura hartzen du. Uneotan, teknologia berriak barneratzea da erronka (eta horri erantzuten ari zaizkio); zerbitzua modernizatzeaz gain, Udal Liburutegien Sarea indartzea ekarriko du. Dena den, sare hau indartzen doan heinean, geroz eta beharrezkoagoa bihurtzen da Liburutegi Nagusia aterbetuko duen eraikin handi bat. Liburutegi Nagusirako eraikina eta Koldo Mitxelena aretik koordinazioa sakontzea dira etorkizuneko erronka garrantzitsuenak.

2. Donostia Kulturak, hiriko kultur programazioaren barruan bultzatutako jarduera aipagarrienak eta erabilera/asistentzia adierazleak

➤ Joera orokorra

Udaletatik urte askotan kultur garapenaren alde egindako lana kulturaren zabalkundearen oinarritu da; hots, kultur adierazpenak eskariari gerturatzean. Gaur egun garbi dago beharrezkoa dela horretan eragitea, hots, kultur ohiturak



1. LAN AGIRIA

bultzatzea; ez bakarrik kontsumo ohiturak, baizik eta parte-hartze aktiborako ohiturak, formazio eta sorkuntza ohiturak, eta orientazio pedagogikoa eskaintzea aisialdia nola erabili jakiteko.

Hiritarrei kulturara heltzen laguntzeko konpromisoak berekin dakar kultur eskaintza zabala eskaintzea. Ekipamenduak badirenez, Donostia Kulturak kultur programazio erregular eta egonkorra eskaintzen du urtean zehar: batetik, oinarrizko kultur garapena eta, bestetik, jaialdietako kultur garapena. Gertakariak erakutsi dutenez, bi garapen moduak beharrezkoak dira elkarrentzat, eta hori da, hain justu, hiriaren ezaugarrietako bat.

Donostia Kulturak zuzenki antolatzen ditu Zinema Fantastikoaren eta Beldurrezkoaren Astea eta Antzerki FERIA; Udalaren menpe daude, halaber, Jazz Jaialdia (nahiz eta berezko antolaketa taldea duen), Nazioarteko Zinema Jaialdia edota Musika Hamabostaldia. Horietan, Udal erakundeak, Foru Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak esku hartzen dute.

Kultur Etxeak dira oinarrizko kultur politikaren zutarrak, eta kultur etxeetako jarduerak badu zerikusirik donostiarrek jaialdiei eta gertaerei ematen dieten erantzunarekin eta asistentziarekin. Hiriko kultur agenteek eta jaialdietara datozen profesional eta gonbidatuek aho batez azpimarratzen dutenez, bertako publikoak ondo erantzuten die hiriko jaialdiei. Nazioarteko Zinema Jaialdiari buruz honakoa aipatzen dute: Cannesekoa industriaren jaialdia eta Veneciakoa kritikarena diren bezala, Donostiakoa publikoaren jaialdia dela. Eta gauza bera, Zinema Fantastikoaren eta Beldurrezkoaren Astea, Musika Hamabostaldia, Antzerki FERIA edota Jazz Jaialdia.

Ondorio gisa esan daiteke jaialdia-hiria bikotea ondo ezkontzen direla. Jakina, kultur helburua ez da bakarra; turismoa erakartzeko amua izatea ere nahi da. Eta, egiatan, lortu egiten dute. Donostiak isla handia du komunikabideetan, eta, Zinema Jaialdiari, Zinema Fantastikoaren Asteari eta abarrei zor die komunikabideetako presentzia, baita orain gutxi zabalduetako ekipamenduei (Chillida-Leku, Aquarium, Kutxa Gunea, etb.) ere. Zentzu honetan, kultur gertakariak identitate zeinua ematen diote.

Jaialdiekin (gertakarien beraien sortzea, programazioa) bete-betean asmatzen da eta publikoaren erantzuna erabatekoa da, baina beste gai batzuei ere zor zaie jaialdien arrakasta. Honakoak nabarmentzen dira:



1. LAN AGIRIA

- Hiriaren kalitatea (edertasuna, tamaina, irisgarritasuna). Horrek toki erakargarri bilakatzen du.
- Gertaerak antolatzen erakutsitako esperientzia eta seriotasuna. Berme eta kategoria zeinu dira hiriarentzat.
- Kalitateko profesionalak, norberak bere arloan harreman onak ditu bai Estatuan bai Europan.

➤ **Jarduera azpimarragarrienak**


2001ean Donostia Kulturak bultzatutako jarduerari dagokienez, ondorengo azpimarra liteke:

- Kultur Etxeek guztira 2.686 jarduera ezberdin aterbetu zituzten. Horien artean, arte eszenikoekin (antzerkia, musika eta dantza) eta zinema-bideoarekin lotura dutenak nabarmentzen dira. Aktibitateen %17 bakarrik diren arren, erabiltzaile gehien biltzen dituzte: %42.
- Patronatuak 736 obra/film/erakusketa programatu zituen guztira. Horien segmentazioa, gaika, honakoa da:
 - 198 (%27) antzezlan
 - 325 (%44) film
 - 126 (%17) musika emanaldi (kontzertuak, errezitaldiak...)
 - 15 (%2) dantza ikuskizun
 - 3 (%0,4) lirika emanaldi
 - 69 (%9) erakusketa
- Programatutako antzezlanak (342) eta filmak (325), guztira 769 emanaldi izan ziren. Antzerkia da Patronatuaren jarduera nagusia (%49) eta ondoren zinema (%32).
- Ikusleei dagokienez, antzerkia ikustera 82.012 lagun joan ziren guztira. Antzerki saioko 219 ikusle izan ziren batez beste, nahiz eta desbideraketak garrantzitsuak diren. Antzerki Ferian, saioko 462 ikusle bildu ziren batez beste. Neguko denboraldian 174 ikuslekoa da batezbestekoa, eta udako denboraldian 268 ikuslekoa.
- Musika ikuskizunetan 202 entzule izaten da aldiko, batez beste.
- Zinema jarduerari gagozkiola, 245 emanaldi izan ziren eta guztira 46.793 ikusle bildu zituzten. Hortaz, 191 ikusle emanaldiko, nahiz eta kasu honetan ere desbideraketa handiak izan. Zinema Fantastikoaren eta Beldurrezkoaren Asteak lortzen du emanaldiko, eta batez beste, ikusle gehien biltzea: 284. Nosferatu egitarauak, 220 ikusle.




1. LAN AGIRIA

- 69 erakusketetatik 11 San Telmo Museoa izan ziren eta guztira 58.340 bisitari jaso zituzten. Beste 56 erakusketa kultur etxeetan izan ziren.
- Bilakaerari begiratu gero, kultur etxeetan gauzatutako jarduerak %22 gehitu dira hirurtekoan, baina erabiltzaileen ugaritzea %12koa baino ez da izan. Jarduera guztien artean, erakusketek izan dute aipatu tartean bilakaerarik onena, eta ikastaro eta tailerretara doazen kopuruak bere horretan jarraitzen du. Kultur etxeetako antzerki, musika, dantza eta zinema-bideo programazioek jasotzen dute publikorik gehien, baina hirurtekoan garrantzi erlatiboa galdu zuten.
- 2001ean kendu egin zen merkataritza jarduera zinematografikoa eta, horren ondorioz, asko gutxitu da emanaldien eta erabiltzaileen zenbaki absolutua, baina beste jardueretan (Nosferatu, Beldurrezko Astea eta Ziklo bereziak), goraka egin du publikoak hirurtekoan, ia %30 igota.
- Arte eszenikoen titulupean barneratzen diren emanaldiei dagokienez, beheranzko bidea hartu dute, batez ere musika-saioak asko urritu direlako. 1999an baino %24 ikusle gutxiago joan zen 2001ean jarduera eszenikoetara.
- Liburutegietan, bilakaera nabarmena izan da hirurtekoan. Sarea zabaltzeak eragin du horretan. Ernest Lluch Kultur Etxea 2001eko apirilean batu zitzaion sareari. 1999an, mailegu zerbitzuaren kideak ez ziren 28.000ra iristen eta 193.000 mailegu egin zituzten guztien artean. 2001ean, aldiz, 49.000 kide baino gehiago ziren, eta horien guztien artean 314.285 mailegu egin zituzten. Igoera %76koa eta %63koa da, hurrenez hurren.



1. LAN AGIRIA

1.1 Grafikoa Donostia Kulturak sustatutako jarduerak, diziplinaka eta asistentzia mailaren arabera. 2000 eta 2001 urteak.





1. LAN AGIRIA

1.3. koadroa Donostia Kulturak sustatutako jarduera nagusiak eta erabilera/asistentzia maila, 1999-2001

	1999		2000		2001	
	Jarduerak		Erabiltzaileak		Jarduerak	
DONOSTIA KULTURA						
1. Kultur Etxeak:						
Gauzatutako jarduerak:	2.200	174.199	2.439	185.109	2.686	195.127
▫ Antzerkia, musika, dantza eta zinema-bideoa	%21,0	%50,8	%18,4	%44,0	%16,8	%42,1
▫ Hitzaldiak	%7,6	%3,7	%5,6	%3,1	%6,7	%3,1
▫ Ikastaroak eta tailerrak	%12,2	%3,3	%8,0	%2,5	%9,7	%2,5
▫ Erakusketak	%2,2	%9,9	%2,3	%17,3	%2,2	%18,9
▫ Bilerak eta elkarten jarduerak	%40,4	%10,9	%53,8	%13,9	%42,9	%12,6
▫ Liburutegien eta ikasketa gelen jarduerak	%8,7	%4,4	%7,1	%3,4	%9,6	%4,2
▫ Alokairuak eta bestelakoak	%7,8	%16,8	%4,9	%16,0	%12,0	%16,6
2. Programatutako jarduerak arloka	561	152.392	544*	150.820	524	116.085
▫ Arte eszenikoak	%69,0	%61,4	%73,2	%74,1	%71,6	%70,7
▫ Antzerkia	%0,7	%2,1	%0,7	%2,1	%1,3	%2,1
▫ Lirika	%4,3	%9,3	%3,9	%5,2	%3,1	%5,3
▫ Dantza	%26,1	%27,2	%22,2	%18,6	%24,0	%21,9
▫ Musika	841	60.756	796*	53.306	245	46.793
▫ Zinema eta bideoa	%84,5	%39,3	%74,7	%18,9	--	--
▫ Programazio Komertziala	%4,8	%12,3	%4,0	%11,1	%12,7	%14,6
▫ Nosferatu Programazioa	%7,6	%26,9	%18,0	%47,6	%67,8	%56,3
▫ Ziklo eta saio bereziak	%3,1	%21,5	%3,3	%22,4	%19,6	%29,1
▫ Beldurrezko Astea	51	70.118	61	168.849	69	114.281
▫ Erakusketak						
3. Liburutegiak:						
▫ Maileguak	193.054	27.866**	243.972	39.296**	314.285	49.157
▫ Kultur etxeetako liburutegiak	%56,0	--	%49,7	--	%60,3	
▫ Liburutegi Nagusia	%33,7	--	%41,4	--	%33,8	
▫ Liburutegi Nagusiko Haurren Atala	%10,2	--	%9,0	--	%5,9	
4. Bisitariak San Telmo Museoa:		63.824		106.209		49.180


* Emanaldiak/saioak

**Mailegu zerbitzuaren kideak



1. LAN AGIRIA

1.2. grafikoa Ikusleak emanaldiko, Donostia Kulturak babestutako jardueretan. 2000. urtea.



3. Donostian ospatzen diren jaialdi nagusietako asistentzia maila.

Bost dira, gaur egun, Donostiako eskaintzak era honetako jaialdietan, baina horien aurrekontua, antzintasuna, iraupena, asistentzia maila edota komunikabideetan duten isla oso ezberdina da.

Ezberdintasunak ezberdintasun, jaialdi guztiek dute asmo bera: denboraldia kontzentratu nahi lituzkete jarduerak, profesionalak eta publikoa, Donostia erreferente bilakatuz diziplina bakoitzaren barruan. Zentzu honetan, jaialdi guztiak dira erreferente, eta -honakoa garrantzitsua da- jaialdi horiei esker sortzen dira harremanak eta bertako profesionalen eta kanpokoaren (Estatukoak, nazioartekoak) arteko sareak; harreman sare horiei esker indartzen da Donostiaren eta kulturaren arteko katea.

Hiriarentzat elementu erakargarri direnez, jaialdiei leku jakina gordetzen zaie egutegian; jaialdiak sortu zirenean ere hartu zen aintzat kontu hau, eta oraindik ere amu gisa erabiltzen dira hiriari buruzko komunikazio turistikoan. Uztaila eta azaroaren hasiera artean jazo ohi dira, eta ez da baztertzen negu garaian beste



1. LAN AGIRIA

jaialdi batzuk antolatzeko aukera, Donostia jaialdien hiri bezala identifikatua izan dadin.

Jaialdiak diziplina anitzeko gertakari bihurtu eta diziplina ezberdinetatik eskaintza bikoizteko aukera dagoela aintzat hartu dute. Aukera hau bultzatzen hasiak dira jada Donostiako hainbat jaialdi.

Nazioarteko Zinema Jaialdiak du iraupen luzeena eta ikus-entzulerik gehien biltzeko gaitasuna: 182.400 ikus-entzule 2001ean. Berriena, berriz, Antzerki Feria da. 1999tik 2001era doan hirurtekoan, Zinema Fantastikoaren eta Beldurrezkoaren Asteak izan du publiko igoerarik handiena (+%24); Jazzaldiak, Musika Hamabostaldia eta Nazioarteko Zinema Jaialdiak, berriz, asistentzia maila egonkorragoa dute.

1.4. koadroa Donostiako jaialdi nagusietako asistentzia maila. 1999-2001


	1999	2000	2001
Antzerki Feria	15.709	12.287	12.020
Zinema Fantastikoaren eta Beldurrezkoaren Astea	30.426	30.441	37.656
Nazioarteko Jazz Jaialdia	43.000	42.000	42.500
Nazioarteko Zinema Jaialdia			
▫ Ikusleak	178.944	181.256	182.400
▫ Prentsa	1.268	1.309	1.203
▫ Profesionalak	833	1.084	1.091
Musika Hamabostaldia	45.000	52.000	52.300

Iturria: Donostia Kultura, Nazioarteko Jazz Jaialdia, Nazioarteko Zinema Jaialdia eta Musika Hamabostaldia.

4. Udalaren balorazioa, kultur agente gisa

Udalak kultur agente eta programatzaile bezala duen jarduerari dagokionez, ondorengo ezaugarriak azpimarratzen dira:

- Erreferente argia da hirian
- Instalazioen jabea izateak bermatu egiten du kultur jardueren egonkortasuna urte osoan zehar
- Kultur diziplina ezberdinen arteko oreka aurkitzen saiatzen da



1. LAN AGIRIA

- Barne antolaketa eredu bereganatu du (Kultura Patronatua), eta eraginkorra dela erakutsi du
- Ondo funtzionatzen du eta sendotu egin da programazioa, eta hiria ohitu egin da horretara
- Oinarrizko kultur eskaria sendotzen lagundu du

Etorkizunari begira, eta aurretik aipatu dugunez, Udalaren jarduerak bi dimentsio uztartzen jarraitu behar du:

- **Barnekoa:** hiritarren kultur ohiturak sortzera zuzendutakoa, hiritarrak programatutako jardueretara joan daitezen eta praktika aktiboa izan dezaten, kultur garapenaren jolas-dimentsioa ahaztu gabe, bereziki kolektibo jakinen kasuan (gazteak, helduak, emakumeak...); eta
- **Kanpoko:** kanpoan oihartzuna duten gertakariak. Berez duten interes kulturalaz gain, hiria sustatzeko tresnak dira, eta komunikabideetan hiriaren presentzia eta oihartzuna lortuko dute.

Gainera, beharrezko ikusten da aktibitateen gainean hausnar egiteko eta eztabaidatzeko mekanika norberegantzea, honakoa lortzeko:

- Dinamismoan sakontzea, beste lekuetan egiten dena ikusiz
- Programazioan zein aukera berri egon litezkeen aztertzea, erosotasunean ez erortzea, funtzionatzen duela esanda ez konformatzea
- Aisia-kultura binomioa sendotzea
- Ikus-entzulearekin hartueman izatea, kalitateko gaiak lantzeko
- Elkarlaguntza eta hitzarmenen kultura erraztea (beste agente batzuekin, ekimen pribatuarekin)

5. *Kursaal Auditorioa eta Kongresu Jauregia*

- **Beste kultur agenteak, ekipamentuak eta jarduera anitzak**

Kulturarekin zerikusia duten jarduerak aurrera eramaten dituzten agente, elkarte, talde, enpresa, etab. asko daude hirian, baina horiek aipatzea eta horiek aztertzea ez da diagnosi honen helburuetako bat. Ondorioz, hiri barruan zein kanpoan eragin handiena dutenak eta hiriarentzat bereizgarri direnak bakarrik aipatuko ditugu orriotan, nahiz eta jakin aipatuko direnak baino askoz ere gehiago direla.



1. LAN AGIRIA

➤ ***Kursaal Auditorioa eta Kongresu Jauregia***

1999an zabaldua, Kursaal Auditorio eta Kongresu Jauregia da hiriko kultur ekipamendu karismatikoena. Nazioarteko Zinema Jaialdiaren egoitza ofiziala da; Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuen, Musika Hamabostaldiaren, Cultura Musical Elkartearen, Jazzaldiaren eta Kursaal Fundazioak bultzatutako ekitaldien eszenatokia. Eta zeregin handia du hiriaren kultur garapenean, zabalkundearen alderdian.

2001.ean, guztira 81 kultur ekitaldi ospatu ziren bertan (Zinema Jaialdia, Musika Hamabostaldia edo Jazz Jaialdia ekitaldi bakar bezala hartuta). Horietara, 243.316 ikus-entzule joan ziren (+%8, 2000. urtearen aldean).

Kursaal Fundazioak, Kursaalako kultur eskaintza garatzeko sortutako erakundeak, guztira 28 ekitaldi programatu zituen 2001ean, eta 40.000 ikus-entzule baino gehiago bildu zituzten. 2002ko lehen denboraldirako (urtarriletik ekainera) 20 ikuskizun ditu programatuta (%80 musika ikuskizunak).

➤ ***Gipuzkoako Foru Aldundiaa: Untzi Museoa, Koldo Mitxelena Zentroa eta Arteleku Arte Gunea***

Gipuzkoako Foru Aldundia: konpetentziak ditu Ondare eta Artxibategi, Museo, Arte eta erakusketak, Liburutegiak eta Euskara arloetan, baita Bekak eta laguntzak arloetan ere. Hirian duten eragina dela eta, Untzi Museoa, Koldo Mitxelena Zentroa eta Arteleku Arte Gunea aipatu behar dira.

- **Untzi Museoa.** Portuan kokatua, 1991n zabaldu zen Euskal Itsas Ondarea berreskuratu, gorde eta zabaltzeko helburuarekin. Egungo egoitza behin-behinekoa da, baina oraindik ere zehazteko dago zein izan ote litekeen instalazioak handitzeko aukera emango lukeen egoitza berria.
- **Koldo Mitxelena Zentroa.** Liburutegia, erakusketa gunek eta konferentzia gela ditu. Liburutegiak 4.500 m²-ko azalera du –horietarik 3000, publikoaren erabilerarako–, 160.000 ale eta 50.660 kide. Bilduma orokorraz eta erreserbakoaz gainera, fonoteka-bideoteka, hemeroteka eta infoteka zerbitzuak ditu. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak bereganatzeko prozesuan murgilduta dago, bai liburutegiko zerbitzuei dagokienez bai eduki digitalak sortzeari dagokionez.



1. LAN AGIRIA

- **Arteleku.** Arte garaikideko zentro publikoa, Loiola auzoan. Diziplina arteko proposamen teoriko eta praktikoak sortzeko eta bultzatzeko jaio zen. Erreferentzia zentro izan nahi du arte sorkuntza garaikidean beren ezagutza zabaldu nahi duten nazioarteko nahiz nazio barruko artistentzat.
- Ikastaro monografikoak, tailerrak eta mintegiak eskaintzen ditu, eta sorkuntzarako estudioak alokatzen. Beste kultur agente batzuek bultzatutako proiektuetan hartzen du parte, hala nola, Plaza Jaialdia, Musika Elektronikoaren Jaialdia... Nabarmentzeko modukoa da, halaber, bere liburutegia eta dokumentazio zentroa. Instalazioak zaharberritzen ari da uneotan.
- Gainera, Zinema Jaialdian, Musika Hamabostaldian eta Kursaal Fundazioan hartzen du parte Foru Aldundiak.

➤ ***Kutxa: Miramongo Zientziaren Kutxa-gunea, Erakusketa gelak***

Hiriko kultur ekipamenduei egin dieten ekarpena dela eta, 2001ean zabaldu zen Miramongo Zientziaren Kutxa-gunea Museoa, Kubo.kutxa Erakusketa Gela eta Boulevard Erakusketa Gela nabarmendu behar dira. Hiriko kultur jarduera ezberdinetan hartzen du parte Kutxak; esate baterako, Antzerki Ferian, Zinema Fantastikoaren eta Beldurrezkoaren Astean, Musika Hamabostaldian, Kursaal Fundazioan, eta abarretan, eta, horrezaz gain, bere ekimeneko jarduerak garatzen ditu.

➤ ***Beste museo batzuk: Elizbarrutiarena, Zementua eta Chillida-Leku***

Beste bi museo ere baditu hiriak: **Elizbarrutiaren Museoa** eta **Zementuaren Museoa** (Añorga). Elizbarrutiaren artelan erligiosoak biltzen ditu lehenengoak eta bigarrena Cementos Rezola enpresaren ekimenetik sortu zen, jarduera industrial horri lotutako gertakariak zabaltzeko asmoz. Hernaniko udalerrian dagoen arren, **Chillida-Leku Museoa** aipatu behar da, hiriarentzat garrantzia handia duelako.

➤ ***Musika erakundeak***

Musika Kontserbatorio Gorena, Euskadiko Orkestra, Donostiako Orfeoia, Udal Musika eta Dantza Eskola eta beste musika erakunde batzuen presentziak (Udaleko iturrien arabera, 13 erakunde) abantailazko lekuan jartzen dute Donostia, musikari dagokionez.



1. LAN AGIRIA

➤ ***Kultur erakundeak***

Udalerriaz kanpoko pisua duten hainbat erakundek egoitza dute hirian: Euskaltzaindiak, Euskal Herriaren Lagunen Erret Elkartek, Aranzadi Zientzia Elkartek, Gipuzkoako Eusko Ikaskuntzen Elkartek, Euskal Idazleen Elkartek eta Euskal Aktoreen Batasunak.